



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

UDALAREN OSOKO BILKURA **2007ko uztailaren 12ko ohiko bilera**

BERTARATU DIRENAK:

ALKATE-UDALBURUA

EAJ-PNV.- ENEKO ARRUEBARRENA ELIZONDO jn.

ZINEGOTZIAK

EAJ-PNV.- JESUS BILBAO CURIEL jn.
EAJ-PNV.- AINARA URBIETA BERGARA and.
EAJ-PNV.- BEATRIZ RESA BARDECI and.
EAJ-PNV.- IÑAKI GOIKOETXEA GORDO jn.
EAJ-PNV.- M^a CARMEN URBIETA GONZALEZ and.
EAJ-PNV.- JON LOIZAGA CAYERO jn.
EAJ-PNV.- JON PELI LAZKANO ALZAGA jn.
EAJ-PNV.- JUAN CARLOS IBARRA ARETXABALETA jn.
EAJ-PNV.- AINARA GUZMÁN URRUTIA and.
PSE-EE.- JOSÉ M. TOLEDO CAÑAMERO jn.
PSE-EE.- ELSA LOPEZ DE TORRE CAMPO and.
PSE-EE.- LUIS MARIA PEREZ PEREZ jn.
PSE-EE.- PILAR GRADOS GARCIA and.
PSE-EE.- J. ALFONSO LOPEZ AREVALILLO jn.
PSE-EE.- NEKANE JIMÉNEZ FERNANDEZ and.
PP.- XABIER OLABARRIETA ARNAIZ jn.
PP.- ARTURO ALDECOA RUIZ jn.
PP.- FERNANDO PINTO PALACIOS jn.
EB-B.- DANIEL HERRERA TORRECILLA jn.
EB-B.- ISABEL GARCÍA GARCÍA and.

EUSKARA ITZULTZAILEA

XABIER PAYA jn.

KONTU-HARTZAILEA

EIDER SARRIÁ GUTIERREZ and.

IDAZKARIA

M^a VICTORIA ERKIAGA ARANGÜENA and.

Leioako udaletxean, bi mila eta zazpiko uztailaren hamabiko arratsaldeko zazpiak direla, elizate honetako udalaren osoko bilkura bildu da ohiko bilera egiteko. **Alkate-udalburua, ENEKO ARRUEBARRENA ELIZONDO jauna** izan da bileraren burua eta **idazkariak, M^a VICTORIA ERKIAGA ARANGÜENA andreak**, lagundu dio. Haiekin batera, orriaren ertzean agertzen diren zinegotziek parte hartu dute bileran eta egintza zein eskubidez Udalbatza osatzen duten kideen legezko gehiengoa osatzen dute. Alkate-udalburu jaunak aurretik egin die ohiko bileran parte hartzeko deia, guztia Toki Araubidearen oinarriak arautu dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.1 artikuluan ezarritakoa, aipatutako legearen 21.1.c) artikuluan azaldutakoa eta azaroaren 28ko 2.568/1986 Errege Dekretuak onetsi duen Tokiko Udalbatzen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko araudiaren 41.4 eta 80.1 artikuluetan xedatutakoa oinarritzat hartuta.

Adierazitako orduan eta lehenengo deialdian, Udalburutzak ekitaldia irekitzat jo du; jarraian, ohiko bilera honetako eguneko aztergaien zerrendan agertzen diren gaiak aztertu dituzte:

I.- ERABAKITZEKOAK

1.- ALKATETZAREN 349/2007 DEKRETUAREN BERRI EMATEA. HORREN BITARTEZ IÑAKI GOIKOETXEA GORDO JAUNARI ESKUORDETU ZAIO MENDIBILBARRI KALEKO 2-4-6-8 ETA 10. ZENBAKIETAN DAUDEN LOKALAK SALEROSTEKO ESKRITURAK SINATZEKO

ESKUMENA: Alkatetzaren 2007ko maiatzaren 3ko 349/07 Dekretuaren berri eman da. Hona hemen hitzez hitz dioena:

Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudia onetsi zuen azaroaren 28ko 2568/1986 Legegintzazko Errege Dekretuaren 43, 44 eta 45. artikuluetan xedatutakoaren



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

arabera, alkateak bere eskumenak eskuordetu ditzake, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.3 eta 71. artikuluetan adierazitakoak izan ezik, aipatutako araudian adierazitako terminoei jarraituz.

Eskuordetze berezia egin behar da **IÑAKI GOIKOETXEA GORDO zinegotzi eta Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziko burua** baimentzeko, Mendibilbarri kaleko 2-4-6-8 eta 10. zenbakietan dauden lokalak saltzeko eskritura publikoak sinatzeko funtzioak har ditzan. Horiek, aipatutako lokalak besterentzeko lehiaketaren espedientea amaitu ostean adjudikatu dira.

Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiaren 43. eta hurrengo artikuluetan xedatutakoaren arabera,

HONEN BITARTEZ, honakoa erabaki dut:

1. *Iñaki Goikoetxea Gordo zinegotzi eta Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziko buruari eskuordetuko zaio Mendibilbarri kaleko 2-4-6-8 eta 10. zenbakietan dauden lokalen salerosketa eskriturak sinatzeko eskumena. Horiek, lehiaketaren bidez besterendu dira.*
2. *Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiaren 44.2 artikuluan xedatutakoa betetzeko, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eskriturak sinatzeko eskumenaren eskuordetzea.*
3. *Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiaren 44.4 artikuluan xedatutakoa betetzeko, eskuordetze hau udalaren osoko bilkurari jakinaraziko zaio, egingo duen hurrengo batzarrean.*

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Mendibilbarri kaleko 2-4-6-8 eta 10. zenbakietan dauden lokalak salerosteko eskriturak sinatzeko eskumena Iñaki Goikoetxea Gordo jaunari eskuordetzeko Alkatetzaren Dekretuaren **jakinaren gainean** geratu da Udalaren osoko bilkura.

2.- HAPOko 7 C ARLOAREN (SAN BARTOLOME HISTORIKOA) XEHETASUN AZTERLANA BEHIN BETIKO ONESTEA.

Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordearen 2007ko ekainaren 6ko 80. zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak irizpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Jakinarazi da 2007-04-24an Tokiko Gobernu Batzarrean hartu zen 276. ebazpenaren bitartez hasieran onetsi zela HAPOko 7 C arloaren (San Bartolome Historikoa) Xehetasun Azterlana, eraikiko den biribilgunearen lerrokadurak eta tenplurako erabiltzen den eraikinaren fatxadakoak birdoitzeko.

Horretarako ezarritako epean inork ez du alegaziorik aurkeztu eta, horrenbestez, bidezkoa da espedientea behin betiko onestea.

Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak irizpena eman du Udalaren osoko bilkurak behin betiko onetsi dezan aipatutako Xehetasun Azterlana, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 98. artikuluan adierazitakoaren arabera.

Behin betiko onetsitakoan, horri buruzko iragarkia argitaratuko da BAOn, Hirigintzako Plangintza Araudia onetsi zuen ekainaren 23ko 2159/1978 Errege Dekretuaren 140.6. artikuluan agindutakoa betetzeko.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Irizpen hau hartu egin da, baina EB-Berdeak taldeko ordezkariak kontrako botoa eman du, hasieran onesteko tramitean zehaztu zituen arrazoi berberak oinarri hartuta. (okupazioa handiagotuko da eta tenpluaren alboetan dauden ateetatik pertsonak igarotzeko diseinua ez da egokia irisgarritasuna errazteko).

EB-Bko Daniel Herrera Torrecilla jaunak honakoa adierazi du:-{}-

Emango duten botoa azaldu nahi duela adierazi du: bere taldeak aurreko Udalbatzan izan duen jarrerarekin koherentzia mantenduz emango dute botoa, orduan kontrako botoa eman zuten Informazio Batzordean eta, orain ere, kontrako botoa emango dute osoko bilkura honetan.

BOZKETA ETA OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Gaia bozkatu egin da, eta honakoa izan da emaitza: Aldeko hemeretzi boto, EAJ-PNVko hamar ordezkariak, PSE-EEko sei zinegotzienak eta PPko hiru zinegotzienak; kontrako boto bi ere egon dira, EB-Berdeak taldeko bi zinegotzienak. Horrenbestez, Udalaren osoko bilkurak, **gehiengoaren aldeko botoaz erabaki du** HAPOk 7 C arloaren (San Bartolome Historikoa) xehetasun azterlana behin betiko onestea, Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordearen irizpenean azaldutakoari jarraituz.

3.- 2006ko EKITALDIKO KONTU NAGUSI BATERATUA: Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziaren 2007ko ekainaren 12ko 128. zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak irizpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Berezi honek, aurtengo maiatzaren 3an egindako bileran, 64. irizpenaren bitartez 2006ko ekitaldiko Kontu Nagusiari aldeko irizpena eman dio. Kontu horretan biltzen dira Udalaren kontuen egoerak, baita Euskararen Erakundea eta Soinu-Atadia Fundazio Publikoa Erakunde Autonomoenak ere.

Kontua jendaurrean azaldu da, 2007/05/22ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratu eta gero, eta erakusgai egon da hamabost laneguneko epean. Epe hori ekainaren 8an amaitutakoan, ez da aurkeztu erreklamazio, eragozpen edo oharrik.

Kontua Udalbatzaren Osoko Bilkuran aurkeztu behar da, uztailaren 31 baino lehen onetsi ahal izateko, hala badagokio, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 63. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak egokitzat jo du Kontu Nagusi bateratuaren aldeko irizpena berriro ematea eta hurrengo osoko bilkuraren gai-zerrendan kontu hori onartzeari buruzko puntua sartzea.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak **aho batez erabaki du** 2006ko ekitaldiko Kontu Nagusi Bateratua onestea, Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak emandako irizpenean adierazten den bezala.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

4.- UDAL KIROL INSTALAZIOETAN ETA MUSIKA KONTSERBATORIOAN ZERBITZUAK EMATEAGATIKO TASAK ARAUTZEN DITUZTEN ETA 2007ko IRAILAREN 1ean INDARREAN SARTU BEHAR DIREN ZERGA ORDENANTZEN ALDAKETA: Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziaren 2007ko ekainaren 12ko 129. zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak irizpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Udal zerbitzuetako batzuk ikasturtean ematen dira, hau da, irailetik ekainera. Hori dela eta, zerbitzu horiek arautzen dituzten zerga ordenantzak egokitu behar dira, aurtengo irailaren batean tarifak behar bezala onetsita izan ditzaten.

Gauzak horrela, Musika Kontserbatorioa, Udal Euskaltegia eta Udal Kiroldagietan emandako zerbitzuetako batzuk dira egoera horretan daudenak.

Soinu Atadia Fundazio Publikoko Zuzendaritza Kontseiluak, 2007rako aurrekontua onetsi zenean, 2007/2008 ikasturterako prezio publikoak ere onetsi zituen. Hona hemen:

Soinu-Atadia Fundazio Publikoko Zuzendaritza Kontseiluak 2006ko azaroaren 6an onetsita

22:- 2007/2008 IKASTURTERAKO PREZIO PUBLIKOAK.- Fundazioko Zuzendaritza Kontseiluak, aurrekontu proiektuarekin bat eorrita, datorren ikasturterako prezio publikoen honako proposamen hau onestea ERABAKI DU.

*** Prezio publikoak, ikastaro osoa batera ordaintzen denean**

	<u>2006/07</u>	<u>2007/08</u>
Material didaktikoa	18,58	19,51
Hastapena. II Maila	36,50	38,32
1.eta 2. Moduluak. II Maila:	73,00	76,64
Sendotua 3. eta 4. II Maila	91,25	95,80
3. eta 4. Moduluak. II Maila	73,00	76,64
6. eta 6. Moduluak. II Maila	54,75	57,48
Moduluak, III Maila	54,75	57,48
LOGSE ertaina, Sinfonikoen 1. zikloa	125,93	153,30
LOGSE ertaina, Pianoko 1. zikloa	125,93	132,20
LOGSE ertaina, Pianoko 2. zikloa	146,91	154,24
LOGSE ertaina, Akordeoi/ Gitarrako 2. zikloa	146,91	154,24
LOGSE ertaina, Sinfonikoen 2. zikloa	146,91	176,30
LOGSE ertaina, 3. zikloa	188,89	198,32

*** Ikastaro bakoitzeko 10 hilabetetan ordaindu beharreko prezio publikoak**

	<u>2006/07</u>	<u>2007/08</u>
(*) Hastapen ikastaroa. II Maila	190,00	199,50
(*) 1.eta 2. Moduluak. II Maila	443,50	465,80
Sendotua 3. eta 4. II Maila	718,00	754,00
(*) 3. eta 4. Moduluak, II Maila	454,00	476,80
(*) 5. eta 6. Moduluak, II Maila	359,00	377,00
(*) Moduluak, III Maila	359,00	377,00
LOGSE ertaina, Piano, Akordeoi, Gitarrako 1. zikloa	1.117,20	1.173,30
LOGSE ertaina, Sinfonikoen 1. zikloa	1.209,20	1.269,60
LOGSE ertaina, Pianoko 2. zikloa	1.311,60	1.377,10
LOGSE ertaina, Akordeoi/ Gitarrako 2. zikloa	1.216,60	1.277,40



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

LOGSE ertaina, Sinfonikoen 2. zikloa	1.403,60	1.473,80
LOGSE ertaina, Pianoko eta Sinfonikoen 3. zikloa	1.639,30	1.721,20
LOGSE ertaina, Akordeoi/ Gitarra 3. zikloa	1.544,90	1.622,20

SAKONETA KIROLDEGIA

12. EPIGRAFEA.-

SAKONETA KIROLDEGIAREN zerbitzua erabiltzeagatiko tasa

	2007- 2008ko TARIFA % 2,7ko gehikuntza rekin		TARIFA 2007-2008 con 2,7% incremento
12. Muskulatzeko gimnasia zerbitzua		12. Servicio de Gimnasia de Musculación	
Abonatuak, hiruhilero ordainduz	55,25	Abonados pago trimestral	55,25
Ez abonatuak, hiruhilero ordainduz	84,00	No abonados pago trimestral	84,00
13. Igerilekuak erabiltzea		13. Utilización de las Piscinas	
B) Igeriketa ikastaroak		B) Cursillos de natación	
<u>Igeriketa berezia (hiruhileko ikastaroa)</u>		<u>Natación especial (cursillo de 3 meses)</u>	
Abonatuak	47,90	Abonados	47,90
Abonatu gabeak	74,55	No abonados	74,55
<u>Umetxoak (hiruhileko ikastaroa)</u>		<u>Bebés (cursillo de 3 meses)</u>	
Abonatuak	60,90	Abonados	60,90
Abonatu gabeak	81,15	No abonados	81,15
<u>4 urteko umeentzat adaptazioa (bihileko ikastaroa)</u>		<u>Adaptación para niños de 4 años (cursillo de 2 meses)</u>	
Abonatuak	47,90	Abonados	47,90
Abonatu gabeak	74,55	No abonados	74,55
<u>4 urte baino gehiagokoentzat hastapena (bihileko ikastaroa)</u>		<u>Iniciación para niños mayores de 4 años (cursillo de 2 meses)</u>	
Abonatuak	42,05	Abonados	42,05
Abonatu gabeak	74,55	No abonados	74,55
<u>Hastapena eta hobekuntza helduentzat (hilabeteko ikastaroa)</u>		<u>Iniciación y perfeccionamiento para adultos (cursillo de 1 mes)</u>	
Abonatuak	21,40	Abonados	21,40
Abonatu gabeak	37,30	No abonados	37,30
C) IGERIKETA ESKOLA		C) ESCUELA DE NATACIÓN:	
<u>Umeak, hiru egun astean, hiruhilero ordainduz</u>		<u>Niños, 3 días/semana y pago trimestral:</u>	
Abonatuak	25,55	Abonados	25,55
Abonatu gabeak	35,10	No abonados	35,10
<u>Umeak, bi egun astean, hiruhilero ord.</u>		<u>Niños, 2 días/semana y pago trimestral:</u>	



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Abonatuak	21,40	Abonados	21,40
Abonatu gabeak	29,35	No abonados	29,35
<u>Helduak, astean 3 egun, hiruhilero ordainduz</u>		<u>Adultos, 3 días/semana y pago trimestral:</u>	
Abonatuak	57,20	Abonados	57,20
Abonatu gabeak	76,35	No abonados	76,35
<u>Helduak, astean 2 egun, hiruhilero ordainduz</u>		<u>Adultos, 2 días/semana y pago trimestral:</u>	
Abonatuak	38,10	Abonados	38,10
Abonatu gabeak	57,20	No abonados	57,20
D) WATERPOLO ESKOLA		D) ESCUELA DE WATERPOLO:	
Umeak, bi egun astean, hiruhilero ordainduz		Niños, 2 días/semana y pago trimestral:	
Abonatuak	21,40	Abonados	21,40
Abonatu gabeak	29,35	No abonados	29,35
E) TALDEKA IGERIKETA IKASTAROAK		E) CURSOS DE NATACIÓN POR GRUPOS	
Ume bakoitza	33,90	Por niño	33,90
14. Mantenimendurako gimnasia eta aerobika		14. Actividades de Gimnasia de Mantenimiento, y Aerobic	
3 egun astean eta hiruhilero ordainduz:		3 días/semana y pago trimestral:	
Abonatuak	57,30	Abonados	57,30
Abonatu gabeak	76,35	No abonados	76,35
2 egun astean eta hiruhilero ordainduz:		2 días/semana y pago trimestral:	
Abonatuak	38,10	Abonados	38,10
Abonatu gabeak	57,20	No abonados	57,20
15. Dantza eta gimnasia erritmikoa jarduerak		15. Actividades de Danza y Gimnasia Rítmica	
3 egun astean eta hiruhilero ordainduz:		3 días/semana y pago trimestral:	
Abonatuak	28,75	Abonados	28,75
Abonatu gabeak	35,90	No abonados	35,90
2 egun astean eta hiruhilero ordainduz:		2 días/semana y pago trimestral:	
Abonatuak	24,10	Abonados	24,10
Abonatu gabeak	29,95	No abonados	29,95
16. Adinekoentzako gimnasia jarduera		16. Actividad de Gimnasia para Tercera Edad	
Dohain	0	Gratuito	0
17. Langabeentzako gimnasia jarduera (INEM-en txartela aurkeztuz gero)		17. Actividad de Gimnasia para Parados (Presentación previa del carnet del INEM)	
Dohain	0	Gratuito	0
18. Kirol eskolen jarduerak		18. Actividad Escuelas Deportivas	



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Mahai tenisa eta Esku pelota

Astean 3 egun, hiruhilero ordainduz

Abonatuak	25,55
Abonatu gabeak	35,10

Saskibaloia, Patinaia eta Pala

Astean 2 egun, hiruhilero ordainduz

Abonatuak	21,40
Abonatu gabeak	29,35

Nesken Futbol Eskola

Abonatuak	64,00
Abonatu gabeak	87,85

Atezainen eskola (2 hilabete)

Abonatuak	67,65
Abonatu gabeak	67,65

19. Arte martzialen alorreko jarduerak

Umeak (5etik 14 urte artekoak) hiruhil. ordaink.:

Abonatuak	38,10
Abonatu gabeak	45,80
Helduak, hiruhileko ordainketa:	
Abonatuak	47,80
Abonatu gabeak	66,75

20. Esgrima jarduera

Abonatuak (hiruhilekoa)	36,50
Abonatu gabeak (hiruhilekoa)	43,85

21. Areto dantzak (hiruhilero ordainduz)

Egun bat astean (2 ordu)	
Abonatuak	36,75
Abonatu gabeak	55,25
Egun bat astean (1 ½ ordu)	
Abonatuak	30,65
Abonatu gabeak	46,00

22. Bulder erabiltzea

B) Igoaldi ikastaroak Hiruhilero ordainduz:	
Abonatuak	27,25

Tenis de mesa y Pelota a mano

3 días/semana y pago trimestral

Abonados	25,55
No abonados	35,10

Baloncesto, Patinaie y Pala

2 días/semana y pago trimestral

Abonados	21,40
No abonados	29,35

Escuela Fútbol Femenino

Abonados	64,00
No abonados	87,85

Escuela de Porteros (2 meses)

Abonados	67,65
No abonados	67,65

19. Actividad de Artes Marciales

Niños (5 a 14 años) y pago trimestral:

Abonados	38,10
No abonados	45,80
Adultos y pago trimestral:	
Abonados	47,80
No abonados	66,75

20. Actividad de Esgrima:

Abonados (pago trimestral)	36,50
No abonados (pago trimestral)	43,85

21. Bailes de salón (pago trimestral)

1 día a la semana (2 horas)	
Abonados	36,75
No abonados	55,25
1 día a la semana (1 ½ hora)	
Abonados	30,65
No abonados	46,00

22. Utilización del búlder

B) Cursillos de escalada Pago trimestral	
Abonados	27,25



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Abonatu gabeak	35,00	No abonados	35,00
----------------	-------	-------------	-------

24. Spinning

3 egun astean (hilabete bat)		3 días/semana (1 mes)	
Abonatuak	22,70	Abonados	22,70
Abonatu gabeak	28,75	No abonados	28,75
2 egun astean (hilabete bat)		2 días/semana (1 mes)	
Abonatuak	16,30	Abonados	16,30
Abonatu gabeak	24,20	No abonados	24,20

25. Tai-chi

2 egun astean (hilabete bat)		2 días/semana (1 mes)	
Abonatuak	42,15	Abonados	42,15
Abonatu gabeak	49,20	No abonados	49,20

26. Pilates

2 egun astean (hilabete bat)		2 días/semana (1 mes)	
Abonatuak	82,15	Abonados	82,15
Abonatu gabeak	102,70	No abonados	102,70

27. Aikido

2 egun astean (hilabete bat)		2 días/semana (1 mes)	
Abonatuak	26,65	Abonados	26,65
Abonatu gabeak	37,30	No abonados	37,30

Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 16. artikuluan xedatutakoaren arabera, ordenantzak ezarri eta aldatzeko behin-behineko erabakia 30 eguneko epean azaldu behar da jendaurrean. Epe horretan, interesdunek espedientea aztertu eta erreklamazio egokiak aurkeztu ahal izango dituzte eta, horrelakorik egotekotan, informazio batzorde honetan aztertuko dira. Erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, behin-behineko erabakia behin betiko hartu dela ulertuko da, bestelako erabakirik hartu behar izan gabe.

Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak honakoa egitea egokia dela adierazi du:



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

1. Aldeko irizpena emango zaie Udal Kirol Instalazioen zerbitzuak erabiltzeagatiko tasa eta Musika Kontserbatorioaren zerbitzuak erabiltzeagatiko tasa arautzen dituzten zerga ordenantzen aldaketari, irizpen honetan proposatutakoaren arabera.
2. Berau onesteari buruzko puntua Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo bileraren aztergaien zerrendan sartuko da.
3. Jendaurrean azalduko da tasak ezarri eta agintzeari buruzko erabakia, Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2006 Foru Arauaren 16. artikuluan ezarritakoaren arabera.
4. Jendaurrean azaltzeko epean erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, behin-behineko erabakia behin betiko hartu dela ulertuko da, bestelako erabakirik hartu behar izan gabe.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak **aho batez erabaki du** behin-behinekoz onetsiko dela Udal Kirol Instalazioetan eta Musika Kontserbatorioan zerbitzuak emateagatiko tasak arautzen dituzten Zerga Ordenantzen aldaketa, Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak emandako irizpenean adierazten den bezala.

5.- UDAL EUSKALTEGIAN ZERBITZUAK EMATEAGATIKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ETA 2007ko IRAILAREN 1ean INDARREAN SARTU BEHAR DEN ZERGA ORDENANTZAREN ALDAKETA: Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziaren 2007ko ekainaren 13ko 131. zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak irizpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Era berean, Udal Euskaltegiak 2007ko irailetik 2008ko ekainera bitarteko ikasturterako egin duen tasen proposamena jakinarazi da. Hona hemen:

2007-08 IKASTURTEA IKASTAROEN PREZIOAK ETA ORDAINTZEKO AUKERAK (Precios de los cursos y opciones de pago)

IKASTAROA	PREZIOA	Aurrematrikula	Gainontzekoa - Resto	
Cursillo	Precio	Prematricula	A-Dena batera (Todo junto)	B-Bi epetan (Dos plazos)
2 ORDU EGUNEAN 2 horas diarias	381,42 □	30,00 □	Formalizatzean: 351,42 □ Al formalizar: 351,42 □	Formalizatzean: 251,42 □ Azaroan: 100,00 □ Al formalizar: 251,42 □ En noviembre: 100,00 □
5 ORDU EGUNEAN (1. lauhilekoa) 5 horas diarias (1º cuatrimestre)	479,70 □	30,00 □	Formalizatzean: 449,70 □ Al formalizar: 449,70 □	Formalizatzean: 349,70 □ Azaroan: 100,00 □ Al formalizar: 349,70 □ En noviembre: 100,00 □
5 ORDU EGUNEAN (2. lauhilekoa) 5 horas diarias (2º cuatrimestre)	473,85 □	30,00 □	Formalizatzean: 443,85 □ Al formalizar: 443,85 □	Formalizatzean: 343,85 □ Azaroan: 100,00 □ Al formalizar: 343,85 □ En noviembre: 100,00 □
BOGA			Formalizatzean: 508,30 □	Formalizatzean: 408,30 □ Azaroan: 100,00 □



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Euskaltegian	538,30 □	30,00 □	Al formalizar: 508,30 □	Al formalizar: 408,30 □ En noviembre: 100,00 □
BOGA Etxean	358,90 □	30,00 □	Formalizatzean: 328,90 □ Al formalizar: 328,90 □	Formalizatzean: 228,90 □ Azaroan: 100,00 □ Al formalizar: 228,90 □ En noviembre: 100,00 □

EAJ-PNVko Javier Bidea Molinillo jaunak adierazi du Euskararen Erakundea Erakunde Autonomoko Zuzendaritza Batzaren batzarrean Olgetan umeentzako jolas-jardueren zerbitzuko 2007/2008 ikasturterako tarifa ere onetsi zutela: 95 □.

Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 16. artikuluan xedatutakoaren arabera, ordenantzak ezarri eta aldatzeko behin-behineko erabakia 30 eguneko epean azaldu behar da jendaurrean. Epe horretan, interesdunek espedientea aztertu eta erreklamazio egokiak aurkeztu ahal izango dituzte eta, horrelakorik egotekotan, informazio batzorde honetan aztertuko dira. Erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, behin-behineko erabakia behin betiko hartu dela ulertuko da, bestelako erabakirik hartu behar izan gabe.

Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak honakoa egitea egokia dela adierazi du:

1. Aldeko irizpena emango zaio Udal Euskaltegian zerbitzuak emateagatiko tasa arautzen duen zerga ordenantzaren aldaketari.
2. Berau onesteari buruzko puntua Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo bileraren aztergaien zerrendan sartuko da.
3. Jendaurrean azalduko da tasak ezarri eta agintzeari buruzko erabakia, Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2006 Foru Arauaren 16. artikuluan ezarritakoaren arabera.
4. Jendaurrean azaltzeko epean erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, behin-behineko erabakia behin betiko hartu dela ulertuko da, bestelako erabakirik hartu behar izan gabe.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak **aho batez erabaki du** behin-behinekoz onetsiko dela Udal Euskaltegian zerbitzuak emateagatiko tasa arautzen duen Zerga Ordenantzaren aldaketa, Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak emandako irizpenean adierazten den bezala.

6.- ALKATETZAREN 2007ko EKAINAREN 18ko DEKRETUA, KULTUR ARLOKO ALDI BATERAKO LANGILEEN LANPOSTU BATI BURUZKOA, BERRESTEA: Alkatetzaren ekainaren 18ko 547/07 Dekretuaren berri eman da. Hona hemen hitzez hitz dioena:



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Iragan ekainaren 26an, maiatzaren 27ko hauteskundeen ondoren, udal berria eratzeko batzarra egin zen. Batzar horretan alkatea aukeratu zen, eta niri, Eneko Arruebarrena Elizondo jaunari egin zidaten izendapena.

Udalaren gaur egungo Lanpostuen Zerrendan aldi baterako langileentzat gordetako lanpostu bi daude eta, legeak hala aginduta, lanpostu horiek dituztenek kargua utzi dute, izendatu zituen agintaritzak ere kargua utzi duelako. Alkatetza honek uste du Kultur Arloko zuzendariaren lanpostua berehala bete egin behar dela, batez ere kontuan hartuta San Joan jaiek sortzen duten jarduera guztia. Hala ere, beharrezkoa izatekotan eta apirilaren 12ko 7/2007 Legeak onetsi zuen Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua indarrean sartzearen ondorioz, izendapena aldatu ahal izango da.

*Ondorioz, **HONEN BITARTEZ, ANA LÓPEZ ASENSIO andrea** izendatu nahi dut Kultur Arloko zuzendari. Ezinbesteko baldintza izango da udalaren osoko bilkurak aldi baterako langileei buruzko batzarrean aipatutako lanpostua berrestea, bestela beren-beregi suntsiaraziko da izendapena, ondorerik gabe geratuta; ordainsariei dagokienez, 2007ko aurrekontuan ezarritakoaren arabera izango dira, eta izendapenak hil honetako 16tik aurrera izango ditu ondoreak.*

Dekretu horren ondorioz, aldi baterako langileen atalaren barruan Kultur koordinatzailearen lanpostua sortzea proposatu da, koordinazio, aholkularitza eta sustapen lanak egin ditzan arlo horretan. Lanpostuen Zerrenda aldatu beharko da, kultur zuzendariaren lanpostua kentzeko eta kultur koordinatzailearen lanpostuarekin ordeztzeko, baina kenduko den lanpostuak esleituta zituen ordainsariak mantenduko dira.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 104.3 artikulua betez BAO n argitaratuko da izendapen hau, bai eta bere ordainsarien araubidea eta dedikazioa ere (lanaldi osokoa).

EAJ-PNVko **Eneko Arruebarrena Elizondo** alkate jaunak honakoa adierazi du: Azaldu du Enplegatu Publikoaren Estatutua indarrean sartu dela, eta berrikuntza dakarrela orain arte zegoen araudiari dagokionez: horrela, bertan ezarritakoaren arabera, aldi baterako langileek ezin dituzte Zuzendaritzako lanpostuak bete; horrela egin nahi izatekotan, koordinatzaile edo aholkulari motakoekin aldatu behar dira lanpostuok, horiek bai bete ditzatelako aldi baterako langileek.

Adierazi du, printzipioz, dekretu horrek Ana López Asensio andrearen izena berresten duela lanpostuan. Zuzendari gisa dago sortuta, baina benetan bete behar dena Lanpostuen Zerrendaren aldaketa da, aipatutako lanpostua aldatzeko eta zuzendari bezala azaldu beharrean Arloko koordinatzaile bezala agertzeko. Dekretuari aipatutako zuzenketa eginda, osoko bilkurari ekarri zaio, berrets dezan.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak **aho batez erabaki du** berretsi egingo dela Alkatetzaren 2007ko ekainaren 18ko dekretua, Kultur Arloko aldi baterako langileen lanpostu bati buruzkoa. Era berean erabaki da Kultur koordinatzailearen lanpostua sortuko dela aldi baterako langileen atalaren barruan, Kultur Arloko zuzendariaren ordeztzeko, koordinazio, aholkularitza eta sustapen lanak egin ditzan arlo honetan. Lanpostuen Zerrenda aldatu beharko da, Kultur zuzendariaren lanpostua kentzeko eta Kultur koordinatzailearen lanpostuarekin ordeztzeko, baina kenduko den lanpostuak esleituta zituen ordainsariak mantenduko dira.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 104.3 artikulua betez BAO n argitaratuko da izendapen hau, bai eta bere ordainsarien araubidea eta dedikazioa ere (lanaldi osokoa).



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

7.- ARDURALDI ESKLUSIBOA ERAGITEN DUTEN ENEKO ARRUEBARRENA ELIZONDO JAUNAREN, JESÚS BILBAO CURIEL JAUNAREN ETA AINARA URBIETA BERGARA ANDREAREN ALKATE ETA ALKATEORDE KARGUAK ONARTZEKO IDAZKIEN BERRI EMATEA: Ondoren, arduraldi eskusiboa eragiten duten Eneko Arruebarrena Elizondo jaunaren, Jesús Bilbao Curiel jaunaren eta Ainara Urbieta Bergara andrearen alkate eta alkateorde karguak onartzeko idazkien berri eman da. Ekainaren 16an egin zuen alkateak, eta 2007ko uztailaren 9an alkateorde biek.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Arduraldi eskusiboa eragiten duten Eneko Arruebarrena Elizondo jaunaren, Jesús Bilbao Curiel jaunaren eta Ainara Urbieta Bergara andrearen alkate eta alkateorde karguak onartzeko idazkien **jakinaren gainean** geratu da Udalaren osoko bilkura.

II.- UDALAREN OSOKO BILKURAK UDAL GOBERNUAREN KUDEAKETARI EGITEN DION KONTROLA ETA JARRAIPENA

8.- ALKATETZA-UDALBURUTZAREN DEKRETUAK ETA TOKIKO GOBERNU BATZARREAN HARTUTAKO ERABAKIAK: 2007.04.21etik 2007.07.06ra. Toki Araubideari buruzko Oinarriak arautu zituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 46.2.e) artikuluan, apirilaren 21eko 11/1999 Legeak emandako idazkuntzan, eta azaroaren 28ko 2586/1986 Errege Dekretuak onetsi zuen Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiko 42. artikuluan ezarritakoaren arabera, bilkurako espedientean agertzen dira, gero dagokien lekuan artxibatze kalterik gabe, epigrafean aipatutako epealdian Alkatetzak emandako dekretuen kopiak eta Tokiko Gobernu Batzarrak egindako bileren akten kopiak, azter ditzaten.

Udalaren osoko bilkura jakinaren gainean geratu eta ados egon da.

9.- PRESAZKO MOZIOAK:

Atal honetan ez da moziorik aurkeztu.

10.- ESKAERAK ETA GALDERAK.

1.- PPko Arturo Aldecoa jaunak egindako eskaera

Adierazi du alkateak badakiela (urte asko daramatzalako udal honetako zinegotzi izaten) eta PSE-EEko Susana González Rómulo andreak ere bazekiela Batzar Nagusietan gero eta interes gehiagorekin aztertzen den gaietako bat udal heraldikarena dela. Hori dela eta, Gobernu Alderdiak gustuko izan dezakeela uste duen iradokizun bat ekarri du, gehiengo osoak onartu zein ez, gauza logikoa delako.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Ez dakienarentzat azaldu du heraldikako armari eta banderen gaia edozein modutan onesten zela 80 eta 90eko hamarkadetan, baina azken hamarkadetan zehatzago egiten dela lan, batez ere heraldikako ikurrak, armariak eta banderak ez direlako edozein gauza, edozein modutan ipinita: arauak eta legeak dituzte.

Horren inguruan adierazi du honakoa iradokizuna ekarri duela, bere laguna den Juanjo González bexilologoarekin (banderetan eta armarietan aditua) sarritan hitz egin ondoren eta bere ustez 80ko hamarkadaren inguruan sortu diren heraldikako armari buruz berarekin hausnarketak egin ostean. Anomalia ugari daudela ikusi da, ez dira heraldikoak eta, beraz, mesedez eskatu du iradokizuna kontuan hartzeko, oso positiboa delako. Era berean eskatu du Gobernu Taldeak udako hil hauean azter dezala eta irailean Leioako armaria berrikusteko txostena eskatzeko erabakia hartu ahal izan dadila. Izan ere, gaur egungoa ez da heraldikako armaria, baizik eta 80ko hamarkadaren inguruan sortu zen logotipo antzekoren bat. Armaria izatekotan, behar bezala definituta izan behar da, eta nabarmen aldatuko ez den arren, koloreen eta formen erabilera ez da behar bezalakoa. Horregatik, bere ustez, azterlana egin daiteke eta gero, bere garaian eta udalak eta zinegotzi guztiak ados badaude, armaria alda liteke eta behar bezala utzi, hau da, heraldiko.

Amaitzeko azaldu du gauza txikia dela ematen duela, baina oso garrantzitsua dela ikurrak behar bezala definituta egon daitezela.

EAJ-PNVko **Eneko Arruebarrena Elizondo** alkate jaunak honakoa adierazi du:

Adierazi du beretzat guztiz egokia dela proposamena, bera Hirigintzako zinegotzi izan den zortzi urteetan ikusi baitu Udaleko atalen artean ere ez zeudela ados ia zein zen armaria hoberen islatzen zuena. Izan ere, udalaren armariako koloreak ere ez datoz bat atal ezberdinetan eta, nabaria denez, berdea bada eta batek ez badu berdea ipintzen eta beste batek urdina ipintzen badu, baina berdearen tonalitatean edo urdinaren tonalitatean edo beste edozeinetan, sarritan ez datoz bat eta Udalean Bulego Teknikoa da armariaren koloreak hoberen islatzen dituen.

Azkenik, proposamena jaso dutela eta tramitazioa Barne Araubideko Batzordeak egingo duela adierazi du.

2.- PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak egindako eskaera

Eskaera bi egingo dituela adierazi du. Lehenengoa Batzordeen saioen araubidea hasten denerako izango da: Bizkaiko Batzar Nagusiek iragan ostegunean José Luis Bilbao jauna ahaldun nagusi izendatzeko egin zuten osoko bilkuran, Eusko Alderdi Jeltzalearen Gobernuko bozeramaile berriak, Bilbao jauna babesteko hitzaldian jakinarazi zuen legegintzaldi honetan egingo diren edo egitea aurreikusi diren proiektuen artean, Leioako igerileku olinpikoa egitea zegoela. Hori dela eta, bere taldeak eskatu nahi du, posible izatekotan, Kultura eta Kirol Batzordeak egingo duen hurrengo batzarrean edo ahalik eta lasterren, Aldundiak igerileku olinpiko honekin dituen konpromisoak zeintzuk diren azal ditzatela, konpromiso ekonomikoak zein proiektua bultzatzekoak eta, gainera, proiektu osoarekin dituenak, eta ez bakarrik igerilekuei dagokienez baizik eta proiektuan azaltzen den kiroldegi guztiari dagokionez. Halaber, epe ertainean burutzeko asmorik dagoen ere jakin nahi izan du.

EAJ-PNVko **Eneko Arruebarrena Elizondo** alkate jaunak honakoa adierazi du:

Adierazi du dakiena erantzungo duela.

Azaldu du beharizanen memoriaren barruan behin baino gehiagotan imajinatu dutela nolakoa izan litekeen Pinosoloko kiroldegia, neurri jakinak dituzten ur-xaflei buruz ari direla hitz egiten. Beti ibili dute buruan agian ausartegia izango litzatekeela 50 metroko igerileku olinpikoa eraikitzea, 30.000 biztanleko udalerrri batentzat "gehiegikeria" izan litekeela ematen zuelako. Baina beste leku batzuetako esperientzia ikusi da, batez ere Kataluniakoa, 50 metroko igerilekuak



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

dituztela bertan, modularrak: horrela, azken belaunaldiko teknologiarekin igerilekuko hormak zein zoruak mugi daitezke, eta ur-xafla bakar batean, gune bakar batean, hiru jarduera egin daitezkeela aldi berean. Berak, adibidez, selekzio olinpikoa entrenatzen ikusi du sakonera zehatza eta zabalera zehatzarekin isolatutako igerileku batean; igerilekuaren beste alde bat modu librean igeri egiteko zegoen gordeta, eta beste bat adineko pertsonen mantentze-gimnasia egiteko; horietako zoruak, logikoa denez, askoz gorago zeuden. Beraz, 50 metroko igerileku batek ematen du hori egiteko aukera, guneak modulatzeko aukera.

Horri buruz galdetu zitzaion Foru Aldundiari, Leioak horrelako inbertsio bati aurre egin ahal izatekotan, Aldundiak interesik izango lukeen galdetuz. Izan ere, entzuna zuten Aldundia leku baten bila zebilela, ez berez igerileku olinpiko bat egiteko baina agian bai udalerriren baten inertziak aprobetxatzeko eta bertan horrelako ezaugarriak izango litzatekeen azpiegitura egiteko. Elkar ulertzeko aukerarik zegoen galdetu eta baietz erantzun zuten, baina oraindik ez da inolako akordiorik itxi, ez zenbatekoari, ez partaidetza araubideari, ez erabilerei buruz. Azaldu du berak ez dakiela zer esan duen bozeramaileak gai honi buruz, baina benetako konpromiso lotu eta sinatua dagoela esan badu, ez dela zuzena. Aldiz, Aldundiaren asmoetako bat igerileku hori Leioako kiroldegi batean ipintzea dela esan badu, Leioak azkenean igerileku hori egitea erabakitzen badu, hori bai, hori egia izango litzateke.

3.- PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak egindako eskaera

Eskerrak eman dizkio alkateari eman duen azalpenarengatik. Bere taldeak, era berean, euren kidea eta Ermuko zinegotzia zen Miguel Angel Blanco Garrido jauna gogoratu nahi izan du. Orain dela hamar urte, gaur bezalako egun batean, 1997ko uztaileko arratsalde batean, ETA talde terroristak hil zuen, egun bitan bahituta izan ondoren. Pertsona horren, askatasunaren idealak defendatzearen hil egin zuten konpromisodun herritar horren oroimena ekarri nahi izan dute osoko bilkura honetara. Era berean, nabarmendu nahi izan dute herritarrek askatasunak defendatzearen alde bere garaian izan zuten erantzuna, bai Leioan bai Euskadin, bai Espainia osoan.

EAJ-PNVko **Eneko Arruebarrena Elizondo** alkate jaunak honakoa adierazi du:

Osoko bilkura amaitutzat jo duela azaldu du. Jarraian esan du uda denez apur bat zehaztu nahi duela hemendik irailera arte egingo dena: orain arte batzorderik egin gabe egon dira, eratu gabe zeudelako, eta hartu diren ebazpenak dekretu bidez hartu dira. Baina, normala den moduan, dagozkien Batzordeen txostenen zain daude, gai horiek hirugarren osoko bilkura batean aztertu beharko liratekeela. Hala ere, ez dirudi uztailean beste osoko bilkurarik egin behar denik, osoko bilkuraren ohiko batzarra dagoeneko egin delako. Beraz, osoko bilkuraren hurrengo ohiko batzarra iraileko azken asteko ostegunean egingo litzateke. Hala ere, Batzordeetako Idazkaritzek esango diotenaren arabera, agian, beste batzorderen bat egin behar izango da uztaileko bigarren hamabostaldian, esaterako Hirigintzako eta beste batzorderen batekoa, abuztuan ez delako lanik egiten.

Eta arratsaldeko zazpiak eta berrogeita bost minutu direnean, Alkatetza-Udalburutzak ekitaldia bukatutzat eman du, eta Idazkaritza honi dagokion akta egiteko agindu dio, adostutako eran onetsi dena. Hori guztia ziurtatu dut idazkaria naizen honek.

O.E.
ALKATEA

IDAZKARIA,



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA
BIZKAIA